

ISPILUAREN ISLADA FALTA

Gaur, lehenengoz, ispiluko islak izkin egin dit.

Ez dakit zergatik.

Ez dakit...

Nor ote naiz ni?

Ahul sentitzen naiz, nire memoriak huts eginik.

Ez dakit nor naizen,

Ez dakit non nagoen.

Ez dut ezer ulertzen!

Ezintasuna da nagusi nire barnean,

Nire burmuinak jai hartu bitartean.

Ispilura begiratu dut

Erantzunak topatu nahian.

Baina ispilua isilik

Ezerezaren aurrean.

Itzalik ere ez da agertzen lurrean.

Itsasoa harrotuta daukat nire barnean

Hodei beltzak buru aldean.

Oraindik ez dut ulertzen

Ez gogoratzen

Baina ur jauzia somatu dut masailean.

Pena sentitzen hasi naiz,

Pena eta amorrua.

Tristurak zulo beltza sortuaz

Nire barruan.

Irudi lausoak hasi dira agertzen nire gogoan.

Ura gogoratzen dut
Ura nire gorputzaren inguruan.
Baina ez dauka itsasoko uraren antzik,
Larrosa gorriena baizik,
Petalok urtuko balira.

Mina gogoratzen dut,
Samina.
Etsipenaren negarra
Eta amore ematearen beldurra.
Nire azaleko zauria.

Hotz nago.
Ispiluari begiratzeari utzi
Eta oroitzapenen txoko gogorrera itzuli naiz,
Han aurkituz nireislada,
Elurra baino zuriago.

Beldur guztien ostean
Heldu zen ausardia.
Orain bihurtu dena
Damu eta itzuli ezina.
Orain gogoratzen dut, jakina.

Azkenean egitera iritsi nintzen
Momentu hartan buruan neukana.
Zenbat aldiz desagerrarazi dut nire izena?
Zenbat aldiz indartuta agertu dut saminen ostean?
Nahiago nuke oraingoan ere izan balitz horrela.

Jada ez dago atzera bueltarik,
Eguzkiak uxatuko duen laino beltzik
Edo lainoak uxatuko duen eguzki argirik.

Guztia amaitu da,
Jada ez dago atzera bueltarik.

Ispilura itzuli naiz
Ekaitzaren erdian.
Nire isladarik ez da ageri.
Jakina da zergatia,
Orain gogoratzen baitut guztia.

Iluntasuna nagusi
Ispiluaren argian.
Baina berriz begiratu nahi dut,
azken aldiz, modu garbian.
Familia eta lagunak daude bertan, modu itxian.

Ingurukoen mina ikus dezaket,
Guztia ulertzen saiatzen ari direla.
Errudun sentitzen dira
Pentsatuz lagundu behar zutela.
Nola, baina? Garbi dago ezinezkoa zela.

Amaitu da nire sufrimendua
Beraiena astearekin batera.
Ez etsi, maiteok,
Lagun izango duzue itsasargia,
Eta bertan nire presentzia.

Lasaitu da barruko ekaitza,
Zurrunbiloaren haitza.
Haizeak eramango du
Sufrimendu latza.
Puf! eraman ditu nire arima eta hitza.

Gaur, lehenengoz, ispiluko islak izkin egin dit,
Baina ulertu dut zergatik.
Damu baina indartsu sentitzen naiz
Guztia jakinik.
Ispiluaren isladak gidatuko zaituzte zuek behar den bidetik.